



GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIEN HISTORIA



AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| AURKIBIDEA | 2 |
| ERDI AROA | 3 |
| Ermandadea | 3 |
| Probintzia..... | 3 |
| Batzarrak..... | 4 |
| Noiz biltzen ziren batzarrak? | 4 |
| Batzarretako prokuradoreak | 4 |
| Batzarren biltokia | 5 |
| Batzar bereziak | 5 |
| Batzarren ahalmen juridikzionalak | 5 |
| Batzarren epaiketa eskumenak | 6 |
| Zergabideak. "Fuegoak" eta banaketak | 7 |
| Ermandadeko alkateak..... | 7 |
| Aldundiaren sorrera | 7 |
| ARO MODERNOA..... | 9 |
| Batzarretako partaideak | 9 |
| Batzarren eskumenak aro berrian | 9 |
| Foru pasea..... | 10 |
| Batzar Nagusiak eta Konbentzioko Gerra | 10 |
| ARO GARAIKIDEA..... | 12 |
| Sarrera..... | 12 |
| Batzarrak biltzen ziren herrien kopurua handitzea | 12 |
| Foruen ezeztapena | 12 |
| 1876. eta 1931. urteen bitarteko prozesua | 13 |
| II. errepublika eta diktadura (1931-1975) | 13 |



ERDI AROA

Ermandadea

Gipuzkoako Batzar Nagusiek Erdi Aroan izan zuten eginkizuna ulertzeko, funtsezko bi hitzen esanahia azaldu behar dugu lehendabizi: Ermandadea eta Probintzia.

Ermandadea, hainbat herrik edo eskualdek (herri, herriska, biztanlegune, bailara eta abarrek) osaturiko ELKARTE edo aliantza zen, eta helburu desberdinak izan zitzaizkeen: merkataritza, epailaritza, ordena publikoa, mugen defentsa eta abar. Gipuzkoarrek ermandade ugaritan parte hartu zuten XIII. mendeaz geroztik. Gehientsuenak bizialdi laburrekoak izan ziren eta ez zuten beren barrenean Gipuzkoa osoa hartzen. Nolanahi ere, XIV. mende amaieran (1397) herri-mailaz gaindiko aliantza edo ermandade bat finkatu zen Gipuzkoan; iraun egin zuen eta, denboraz, Gipuzkoa OSOrako erakunde IRAUNKORRA bihurtu zen. Bere sorreran epailaritzaz eta ordena publiikoaren defentsaz arduratzen zen aliantza hori. Izan ere, beraren partaide ziren herriek uste zuten elkar harturik hobeto egingo zietela aurre nekazal inguruneko handikien lapurretei. Hala ere, denbora aurrera joan ahala, elkarte horrek bestelako ahalmenak ere eskuratu zituen: gobernu, zerga, armada eta legeei zegozkienak, hain zuzen. Hala, iraun zuen Gipuzkoako Ermandade Nagusi hori, lurraldeko organo politiko eta judizial garrantzitsuena bihurtu zen.



Alfontso VIII.a (1158 - 1214) foruak zin egiten. Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregiko beiratea. José Echenagusiairen bozetoa (1890)

Probintzia

Gaurko pentsaeraren ikuspegitik, probintzia nortasun politikorik gabeko lurralde zati bat litzateke, oso-osorik aginte zentralaren mende legokeena. Hala ere, Erdi Aroko gipuzkoarrentzat Probintzia Ermandade Nagusiaren agintepeko LURRALDEA zen, bere foru eta abantailak zituen esparru bat.



Gipuzkoaren armarri zaharra



Batzarrak

Aipatutako Gipuzkoako Ermandade Nagusia osatzen zutenek, jakina, biltzarrean bildu behar izaten zuten aldian behin, gaiak aztertu eta erabakiak hartzeko. BILKURA edo biltzar horiek Batzar izenez ezagutzen ziren. Gipuzkoa oso ordezkatzeko zutenekotzat jo daitezkeen lehenengo Batzarrak 1397. urtekoak dira, eta Getarian bildu ziren. Hurrengo idazpuruak haiei buruzkoak eta haien ezaugarri eta bilakaerari buruzkoak dira.



1453ko Ordenantzak. GAO/AGG.
Arrazkia: GAO/AGG

Noiz biltzen ziren batzarrak?

Urtean bitan biltzen ziren: neguan eta udan. Negu parteko Batzarrak Santu Guztien Eguna igaro eta handik hamairu egunetara egiten ziren. Udakoak, berriz, Bazko Garizumakoa igarota, hamahiru egun geroago. Haien iraunaldiari dagokionez, era askotako argitasunak dauzkagu, horietako batzuk kontraesanean ageri bazaizkigu ere. 1457ko ordenantzetan azaltzen denez, 12 egunen barruan egiten ziren, eta denbora hori pasata prokuradoreek ezin zuten inolako eskaerarik entzun edo bideratu; harrigarria bada ere, Ordenantza horietatik baimena ematen zieten bertan bilduta zeudenei luzeenez ere beste hogeitabost egunetan bilduta jarraitzeko. Negu eta uda parteko ohizko batzar horiek ziren Batzar Nagusiak.

Batzarretako prokuradoreak

Prokuradorea ordezkari bat zen. Prokuradoreek Gipuzkoako Ermandadeko partaideak (herriak eta bestelako entitateak) ordezkatzeko zituzten Batzar Nagusietan eta Berezietan. Herri nagusiek prokuradoreak aukeratzeko eskubidea zuten. Prokuradore bakoitzak herri bat bakarrik ordezkatu zezakeen, edo gehiago, hiriren batek gerra arazoengatik Batzarretara joaterik ez zeukanean.

Batzarretako partaide izateko, ordezkatzeko zuten herriko bizilaguna behar zuten izan, eta Batzarretan ez zen onartzen apaizek edo letratuak parte hartzerik. Prokuradorez gainera, baziren Batzarretan Probintziaren soldata jasotzen zuen letratu bat,



Domenjon González de Andia tolosarra, Gipuzkoako Eskribau Nagusia XV. mendean. Federico Guevararen olio-pintura. JABEA: TOLOSAKO UDALA



lehendakaria -horren izendapena 1.505ean arautu zen-, Ermandadeko alkate izeneko bi epaile, eskribau leial bat, probintziako zergen "biltzaileak", eta abar.

Batzarren biltokia



"Libro de los Bollones".
1481-1505. GAO/AGG.
Argazkia: GAO/AGG

1457an idatzitako Probintziako ordenantzetan (legeetan) Batzar Nagusiak egiteko haran eta hiriak zehazten dira. Hiru haran dira: Segura eta Ordiziako Harana, Arrasate eta Bergarako Harana eta "Valle de la Marisma" izenekoa. Era berean, haran bakoitzaren barruan bilerak zein herritan egingo diren ere adierazten da. Aurreneko haranean, Segura, Ordizia, Tolosa, Hernani, Villanueva de Oyarzun (Errenteria) eta Hondarribia sartzen dira. Bigarren haranean, Arrasate, Bergara, Elgoibar, Azkoitia, Azpeitia eta Zestoa. Hirugarren haranean, berriz, Donostia, Getaria, Zarautz, Zumaia, Deba eta Mutriku ziren Batzarrak egiteko aukeratutako herriak.

"Libro de los Bollones" delakoak - Erdi Aroko Gipuzkoan sortutako legeak biltzen duen obrak- batzarrak zein ordenatan egiten ziren zehazten du, hainbat mendetan honako ordena honetan egin zirelarik: Zestoa, Segura, Azpeitia, Zarautz, Ordizia, Azkoitia, Zumaia, Hondarribia, Bergara, Mutriku, Tolosa, Arrasate, Donostia, Hernani, Elgoibar, Deba, Errenteria eta Getaria.

Batzar bereziak

Uste gabeko arazoren bat izan eta ohizko egunetatik kanpo batzarrerako deia egin behar zenean, batzar horri Batzar Berezia esaten zitzaion, hau da, Batzar Ezohizkoa eta Apartekoa. Usarraga edo Basarte izeneko tokietan aztertu beharreko gai berezia zehaztuta egiten zen horretarako deia.

Usarraga Bidanian zegoen, gaur egungo Bidegoian udalerrian. Kokaleku batere erosoan ez zenez, handik hurbil zegoen Bidaniako San Bartolome elizara aldatu zen denboraz. Batzar berezien beste bilera-tokia Basarte izan zen, Azkoitiko udal barrutian.

Batzarren ahalmen jurisdikzionalak

Batzar Nagusiek, Probintziako batzar gorenak izanik, beren esku zeukaten Gipuzkoako bizitza publikoaren kontrola, baita Probintziako partaide eta ofizialena eta Batzar Bereziarena ere. Ahalmen horiek, Gipuzkoako foru eta lege bildumetan, "Cuadernos de Ordenanzas" izenekoetan zehaztuta zeuden.



Batzar Nagusiek epe jakin baten barruan beren aurrera azaltzeko dei egin ziezaioketen Probintziako edozein herritarri. Era berean, Batzarrek Lurraldean bakea zaintzeko eginkizuna zuten, Kontzejuek edo Ahaide Nagusiek (Gipuzkoako handikiek) sortarazten zituzten istilu eta liskarrak baketuz. Horregatik, Batzarrek ordenantzak bete zitezen begiratu behar zuten, ordena publikoa urratzen zuten bazter-nahasle eta liskarzaletan zigor zibil eta kriminalak ezarriz. Kontrol eta gainbegiratze lan horri dagokionez, epaile arrunten eta Ermandadekoen epaiak eta aginduak ezin ziren burutu, baldin eta Batzar Nagusiek haiek ikusi eta onartzen ez bazituzten.



"Recopilación de Leyes y ordenanzas de la M.N y M.L. Provincia de Gipuzkoa", "Recopilaciones de Zarategi y Cruzat" izenarekin ezagutzen den Foru koadernoak. GAO/AGG. Argazkia: GAO/AGG

Batzarren epaiketa eskumenak

Gipuzkoako Batzarrek epaiketa eskumena dute ezaugarri berezizat. Batzarren epaiketa eskumenen barruan hainbat gai sartzen dira: batzuk lehen instantziakoak eta beste batzuk apelazio mailakoak.

Lehen instantzian hainbat gai epaitzen ziren: larreei buruzko Probintziako ordenantzak ez betetzeagatik sortzen ziren auziak, Probintziak Ahaide Nagusiekin konpondu gabe zeuzkan arazoak, Probintziako bi kontzejuk (udalek elkarren artean zituzten auziak edo partikular baten eta kontzeju (udal) baten arteko desadostasunak, indarkeriazko kasu kriminalak, eta abar.



1530 urtean Zumaian ospatutako Batzarren erregistroa. GAO/AGG. Argazkia: GAO/AGG

Apelazio mailan, berriz, geroago aipatuko ditugun ermandadeko alkateek emandako epaiak zuzentzeko eskumena zuten Batzarrek, beti ere epai horiek errege-justiziaren kaltetan eta Ermandadearen izen onaren aurka arauz kanpo emanak baziren.

Batzarrek berariaz debekatuta zeukaten hainbat gai epaitzea: ezin zuten eskuhartu epaiketa-auto arruntetan nahiz apartekoetan, baizik eta, bakar-bakarrik Ermandadearen koadernoan aurrikusitako gaitan eta Ahaide Nagusiei zegozkien arazoetan. Ezin zituzten auziak beren gain hartu, ezta alkate arruntei aginduak eman ere.



Zergabideak. "Fuegoak" eta banaketak

Gipuzkoako lurraldea "fuego" izeneko oinarritzko zerga-unitatetan banatuta zegoen. Ordaindu beharreko kopuru jakin bat zegokion fuego bakoitzari eta herri bakoitzak bereak zituen. Fuego kopurua, herri horietako bizilagun kopuruaren arabera finkatzen zen. Hartara, bizilagun gehien zituzten herriek fuego gehiago zituzten eta, jakina, ordaindu ere bizilagun gutxiagokoek baino gehiago ordaindu behar zuten.

Gipuzkoako zerga alorreko oinarritzko beste tresna bat banaketa zen; horren bitartez, Batzarrek sortutako gastuak bertako partaideen artean banatzen ziren, bakoitzak zeukan fuego kopuruaren arabera. Lan horretaz bereziki arduratzen zen pertsona bat ere bazuten Batzarrek: biltzailea.

Ermandadeko alkateak

Merezi du, une batez bederen, kargu horretaz mintzatzea, Ermandadeko kargu berezietakoa baita. Batzarrek berek izendatzen ez bazuten ere, beraiek idatzi zituzten kargu hori arautu eta kontrolatzeko ordenantzak. Ohar bat egin behar dugu. Erdi Aroan alkate hitzak ez zuen inondik ere gaur egun duen esanahia: epaile esan nahi zuen. Eta, horren arabera, Ermandadeko alkateak epaile bereziak ziren, Gipuzkoako Ermandade Nagusiko partaideek izendatuak eta pribilegio horren jabe ziren kontzeju edo biztanleguneez aukeratuak. Aukeratutako gizonak izen onaren jabe eta Ermandadea eta monarkaren zerbitzari leial izan behar zuten.

Ermandadeko alkateek zituzten ahalmenen barruan nekazal ingurunean sortutako kausa kriminalak sartzten ziren. Mailarik goreneko epaia eman zezaketen epe oso labur baten barruan, zigorrak gogorrenak ezarri. Epaitutakoen etxeak suntsitzeko ahalmena ere bazuten. Hala ere, ezin zieten atxilotuei oinaze eman (gipuzkoarrei ez behintzat) letratu baten baimenik gabe. Alkateen epaiak Probintzia, Batzar edo erregearen aurrean bakarrik apelatu zitezkeen.

Aldundiaren sorrera

Gipuzkoako lehenengo diputatuak ordezkari soilak ziren, alegia, herritarren hainbat arazoren kudeaketa bere gain hartzen zutenak Batzar-bilkura batetik bestera. Denboraz, ordezkariak horrek gero eta ahalmen gehiago bereganatu zituen, gaur egun duen maila hartu arte:

probintziako gobernu.



Sello de Juntas. Sin Fecha. GAO/AGG.
Argazkia: GAO/AGG



Noiz sortu zen Aldundia? Zail da hori jakiten. XV. mende erdialdean edo topa genezake haren aurreneko urratsen aztarnaren bat. Guztiarekin ere, erakunde horrek ez zuen nortasun iraunkor eta zehatzik hartu harik eta 1550ean Tolosan Batzar Nagusiak egin ziren arte, data horretan modu arautuago batez hasi baitziren karguak izendatzen.

...



ARO MODERNOA

Batzarretako partaideak

XV. mendearen bukaera geroztik hogeita bost hiribildu, hiru alkatetza (Areria, Saiaz eta Aiztondo) eta bi bailarek (Leniz eta Oiartzun) zuten eserlekua Batzarretan. XVII mendean hiribildu berriak sartzen joan ziren. Bakoitzari zegokion kargu publikoa garbi azaltzen zen. Garrantzitsuenen artean honakoak aipa ditzakegu:

- Korrejidorea: Errege ordezkaria, bera gabe ezin ziren batzarrak egin. Legezko xedapenen arabera, Batzarretara dei egin behar zitzaion, baina azaltzen ez bazen, besterik gabe egin zitezkeen batzarrak, eta haietan hartutako xedapen guztiak baliozkoak ziren..
- Aholkulari lehendakaria: Batzarren jatorrizko Partaideak, bilera egiten zen Udalerriaren proposamenez izendatzen zuten. Bere eginkizuna ez zen batzarren zuzendaritza - hori korrejidoreari zegokion- baizik eta epailaritza. Batzar Nagusiek agintzen zizkieten kausak aztertzekeo ardura zuen, letratu gisa ihardunez. Ordaindutako kargua zuenez, lege-bilduma mardul bat zeukan bere esku okerreko iharduketei aurrea hartzeko, eta bere buruaz eta ondasunez erantzun behar zion berak egindakoari.
- Eskribau leiala: Batzarretako idazkari lanak egiten zituen. Ukitutako gaiei buruzko aktak idatzi behar zituen.
- Prokuradoreak: Prokuradoreak herrietako ordezkariak ziren eta Erdi Aroan egiten zen era eta modu berberan aukeratzen zituzten.



Batzarren Erregistroa.
1711-1712. GAO/AGG.
Argazkia: GAO/AGG

Batzarren eskumenak aro berrian

Berrian zehar, eta Batzarren legegintza-iharduera finkatzearen ondorioz, gero eta eginkizun gehiago hasi ziren hartzen Batzarrak. XVII. eta XVIII. mendeetan honako hauek aipa genitzake laburki:

- Armadari zegozkionak: Gipuzkoa kokaleku estrategikoan zegoenez, armada kontuekin zerikusia zuen guztia garrantzi handikoa izaten zen. Guda-gatazkaren bat gertatuz gero, "Diputación a Guerra" delakoa hasten zen lanean, eta horrelako une larrietan Probintziak ahalik eta ondoen eta indartsuen iharduteko beharrezko neurri guztiak hartzeko ardura haren esku uzten zuten. Era berean, berari zegokion gipuzkoar gudarosteak erreklutatzea, eta hauek foru xedapenen



arabera- ezin zuten lurraldetik atera aurrez soldata jasotzen ez bazuten. Halaber, Probintziari bere defentsarako armak emateaz arduratzen ziren Batzarrak.

- Ekonomia eta zerga alorrekoak: Batzarrei zegokien zergak kobratzeko lana, Erdi Aroan egiten zen modu berean. XVII. eta XVIII. mendeetan finantza-betebehar handiagoak zeudenez, kontsumo-artikuluen gaineko zergak ezarri ziren, eta ardoa, bakailaoa, legatza eta itsas aingiraren gain ezarritako zergen bitartez jasotako emaitza finkatu zen, 1738an Erdi Aroko fuego banaketak desagertu ondoren zerga-sistema berria sortuz.
- Epaiketa alorrekoak: Auzi zibil eta kriminaletan eskumenak izanik, gipuzkoarrek edo gipuzkoarren aurka itsasoan edo lurraldetik kanpo egindako delituak epaitzeko eskumen berezia zuten. 1696an foru bilduma zabal bat osatu zen, Batzar Nagusien epaiketa ahalmenak ezarriz eta Erdi Aroko eskumen gehientsuenak gordez.
- Administrazio eta gobernukoak: 1619tik aurrera, Probintziak bere idazkaria izendatzen zuten, Gipuzkoako administrazioaren buru izanik. Administrazioaren konplexutasunak kargu berriak sortarazi zituen. Halatan, 1667an Batzarren inprimatzaile lana sortu zen eta 1.696an Probintziako artxibatzailearena.
- Legegintzakoak: Legegintzan zuten eginkizun nagusia ordenantza edo legezko arauak egitea zen, horien edukinak arauzko edo prozedurazko arazoetara mugatuz, eta haiek indarrean jartzeko errege-onarpena behar zen, Probintziak horri erantzuteko eskubidea izanik.



Batzarren eta aldundien akten liburua. 1711-12 (AGG-GAO)


Foru pasea

Batzar Nagusien eskumenetako bat Aro Berrian Foru pasea zen. Horrek esan nahi zuen Batzar Nagusiek Koroak emandako xedapen batzuk onartu bai baina bete gabe uzteko eskumena zutela, baldin eta haiek gipuzkoar foruen aurka zihoazela uste bazuten.

Batzar Nagusiak eta Konbentzioko Gerra

Europako monarkiek, Espainiakoak barne, gerra deklaratu zioten 1793an Errepublika frantses gazteari. Gipuzkoako gudarosteak garaipenez garaipen Baionako inguruetara iritsiak baziren ere, gatazkak oso okerreko aldaketa jo zuen Gipuzkoarentzat. Konbentzioaren aldekoak, Donostia harturik, Miranda de Ebroraino iritsi ziren. Batzar Nagusiek, 1794an Getarian bildu eta bere kasa Frantziarekin negoziatzeko ahalegina egin zuten, estatu aske eta neutral bat sortzeko asmoz. Frantsesen interesik ezak eta Konbentzioko Gerrari amaiera eman zion Basileako Bakeak eragotzi zuten asmo hori.

...





ARO GARAIKIDEA

Sarrera



Thouvenot generala

1808ko inbasio napoleonikoaren ondoren, Batzarrek beren eskumenetatik asko galdu zituzten, nahiz eta administrazio frantsesak haien izaera errespetatu. Probintziak ordezkari bat aukeratu zuen Napoleonek Baionan bildu nahi zituen Gortean foru gaiak defenda zituzten. 1809an Batzarrak ez ziren bildu.

Thouvenot generalak -4. Gobernua izenekoaren buruzagia (Euskal Herria barne hartuz)- Gobernu-Kontseilua sortu zuen 1810eko otsailaren 20an; foru erregimenaren benetako ezeztapen gisa jo genezake ekintza hori. 1813an, frantsesek galdu ondoren, berriro bildu ziren Batzarrak, baina aurrerantzean zalantzazko aro berri bat hasi zen, elkarrekin batera bizi izan baitziren erregimen konstituzionala, Cadizen 1812an onartutako testuan oinarritua, eta foru erregimena. Fernando VII.a itzuli ondoren, erregimen konstituzionala ezeztatu eta 1808 baino lehenagoko ordena finkatu zen berriro. Trienio Liberal delakoak (1820-1823) foru erregimenaren esekipena ekarri zuen atzera ere. "Cien Mil Hijos de San Luís" deiakoaren partaidetzak Aldundiaren laguntza izan zuen, azkenik absolutismoa berriro ezartzea lortuz (1823ko otsailaren 9an).

Batzarrak biltzen ziren herrien kopurua handitzea

XIX. mendearen barruan hainbat herri Batzar Nagusien biltoki izateko aukera lortu zuen: Oñati (1846), Irun (1860), Oiartzun (1860), Eibar (1865) eta Zumarraga (1867). Bestalde, Batzarretara ordezkariak bidaltzen zituzten herriak ere gero eta gehiago ziren.

Foruen ezeztapena

Foruen ezeztapena, eta beraz, Batzar Nagusien desagertzea ekarri zuen prozesuak 1837an izan zuen hasiera. Urte horretan, 1837ko irailaren 16ko legearen bitartez, Foru Aldundiak kentzea erabaki zen, horien ordez hauteskunde prozesu baten bidez aukeratu beharreko Aldundi Probintzialak jarritz.

Gerra karlista amaitu ondoren, 1839an, lege anbíguo batek foruak baíetsí zituen monarkiaren batasun konstituzionalaren kalterik gabe, eta Batzar Nagusiak Zestean bildu ziren 1840an.



1840-1876 urteen bitartean, giroa nahikoa nahasia zegoen, batetik desoreka politikoa baitzegoen, eta bestetik forutasuna oso-osorik berreskuratu nahi izateko etengabeko ahaleginak egiten ari baitziren. Ahalegin guzti horiek ahalegin huts baino ez ziren izan eta 1876ko uztailaren 2leko legearen bitartez behin-betirako ezeztatu zen foru erregimena, 1877an foru erakundeak deseginez.

Gertakari horrek ez zuen, hala ere, Gipuzkoaren autonomia ekonomiko eta administratiboaren amaiera ekarri, baizik eta, aldiz, hura sendotu egin zuen hainbat alderditan.

Nahiz eta zerga-salbuespena kendu, salbuespenezko beste erregimen bat sortu zen 1878an, Ekonomi Itunak, 1936ra arte indarrean egon zirenak.

1876. eta 1931. urteen bitarteko prozesua

1876ko legearen ondorioz sortutako antolamendu berriak ezartzen zuenez, sufragio unibertsales aukeratu behar ziren Aldundiak, eta egin ere halaxe egin zen urte horretatik aurrera. Gipuzkoako Aldundia gipuzkoarren bilakaera politikoaren ispilu gardena izan zen.



Gipuzkoa probintzia oso noblearen eta oso leialaren topografia-mapa, José Joaquín de Olazabal Arbelaiz jaunak eta Francisco de Palacios jaunak egina.

Hasieran Karlistak nagusitu baziren ere, geroago Kanobasen aldeko Kontserbadoreak kontrolaz jabetzen hasi ziren gero eta indar handiagoz, eta integristek ere -Karlisten zatiketa ultrakonfesionala- indar nabarmna hartu zuten probintziaren barruan. 1923an ezarrirako diktadurak hauteskunde probintzialen amaiera ekarri zuen eta kudeaketarako batzordea izendatu zen Aldundiaren eginkizunak aurrera eramateko.

II. errepublika eta diktadura (1931-1975)

II. Errepublikaren aldarrikapenak, 1931ko apirilaren 14ean, askatasun erregimena ekarri zuen atzera. Hala ere, ez zen Aldundiak berritzeko hauteskunde prozesurik gertatu. 1931-1936 urteen bitartean probintziako gobernua koalizio errepublikar sozialistako ordezkariak osatu zuten, gobernuak uste baitzuen probintziako hauteskundeak eginez gero



Errepublikaren aurkakoen mesederako izango zirela. 1931 eta 1933 artean,

Eibarren Errepublikaren aldarrikapena. 1931. CASTILLO ORTUOSTE FONDOA. EIBARKO UDALA



ordea, ezkerretik bultzaturiko ekimen autonomiko baten aintzindari izan zen Aldundia. Ezkerreko alderdien koalizioak 1933ko hauteskundeetan izan zuen porrotak prozesu hura geldiarazi zuen. 1933 eta 1936 artean zentru-eskuineko alderdietako partaideek zuzendu zuten Aldundia, Madrilgo gobernuaren antolamendu berdin-berdina izanik. Hala eta guztiz ere, hori ez zen oztopo izan Ekonomi itunaren aldeko lanean jarraitzeko, 1934ko udan Ardoaren Gerra izeneko hartan gertatu zen bezalaxe. Frente Popularrak 1936ko otsaileko hauteskundeetan garaipena lortu ondoren, ezkerreko alderdietako ordezkariak hartu zuten berriro Aldundia.

Gerra Zibilaren denboran Kudeaketa Batzordeko partaideak Bilbora aldatu ziren, Gipuzkoa erori ondoren. Gerra amaiturik, Ekonomi ituna kendu zieten Gipuzkoa eta Bizkaiari. Diktaduraren denboran (1939-1975) Aldundia agintariek izendatzen zuten, eta egoera hori 1975era arte luzatu zen.

...